



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO URRIAREN 10EAN BASABURUKO UDALEKO ZINEGOTZIEK EGINDAKO BILERA BERDINTASUN TEKNIKARIAREKIN

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko urriaren 10ean, arratsaldeko 18:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean eta Amaia Zalba Berdintasun Teknikariaren laguntzarekin. Lucia Beloqui Iriarte, udal Idazkaria bertaratzen da ere bileraren akta jasotzera.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Alaia Arano, Javier Auza, Iker Isiega, Micaela elizalde

18:30 alkateak bilkura hasitzat eman du, gai bakarren inguruan eztabaidatzeko:

Aizarotzko ostatuan izandako eraso sexista.

Iker Isiegasek azaltzen du ostiralean, urriaren 6an, Aizarotzko ostatuan hainbat pertsona bertan zirelarik sexu eraso bat pairatu zuen bertan zegoen neska gazte batek, 50 urte inguruko bizilagun batek eragin zuen eraso.

Edanik zegoen gizonak hitza iraingarriak bideratu zizkion neskari, diskurtso matxista baten barruan eta ukitua egin ere.

Neska honekin zeuden lagunek, neska etxera lagundu zuten eta ostatutako kudeatzaileek erasotzailea kanporatu zuten ostatutik, egoera kontrolpean jarri.

Bertan izan ziren lekukoek harremanetan jarri ziren Ikerrekin, jakinda udaleko zinegotzia zela. Familiarekin harremanetan jarri da eta familiak salaketa jartzeko prozesuan dagoela adierazi diote, baina alabaren anonimotasuna bermatu nahi dute.

Aipatutako erasotzaileak aurrekariak ditu, duela 2 edo 3 urte neska berdinarekin ere gatazka izan zuen baina neskak ez zuen salatu.

Gainera ere adierazten du Iker Isiegasek berriki esleitu den Aizarozko ostatuaren kudeaketa udala esleitzen ari zenean, Aizarotzko bizilagunen ordezkariak izendatuak zeudenez balorazio mahaian, adierazi zuten, jakinda bizilagun honek parte hartzeko dokumentazioa aurkeztu zuela, pertsona honek jarduera matxistak zituela, istiluak eragin izan zituela ostatuan eta kalean eta aktan hala adieraztea eskatu zuten.

Amaia Zalba Berdintasun teknikariak azaltzen die bildutakoei horrelako gertaerekin pestetako protokoloan finkatua dagoen moduan erasoen mahai deitzen da. Mahai honetako partaideak, gizarte zerbitzuetako mankomunitateko lehendakaria daude, eraso gertatu den udaleko eta kontzejuko ordezkari bana eta berdintasun teknikaria.

Eraso mahaian onartzen dituzte hartu beharreko neurriak, udaleko batzarrean onartzen direnak eta aurrera eramaten direnak, horien artean eraso gaitzetsi, bizilagunei asamblada batera deitu, konzentrazioa egin eta beste...

Familak neskaren anonimotasuna bermatu nahi duenez, mahai deitu baino lehen jakin beharko litzateke, saleketa sozialarekin aurrera egin nahi duten hala bakarrik judiziala martxan jarri.

Famiari berdintasun teknikariaren telefonoa emango zaio, ze behar dituen jakiteko eta dituen zerbitzuen inguruan informazioa emateko.

Aipatzen du ere Amaia Zalbak erasotzailea gizarte zerbitzuetako erabiltzailea den edo ez begiratuko duela, egoera honek ondorioak izan ditzakeelako erabiltzaile izanik. Micaela Elizalde galdetzen du ea udala salaketan parte hartu ahal duen akusazio partikular gisa. Berdintasun teknikariak baieztatzen dio aukera hori badagoela bai. Gainera ere udalak egoera hautetarako gizarte mankomunitatetik prestatutako adierazpen instituzionala onartu ahal du eta familia ados balego, konzentrazioa eta beste iharduerak burutu, hots tailerrak, formakuntzak...

Bildutakoek ere aipatzen dute kontutan hartuz eraso udal eraikin batean gertatu zela, erasotzaileari deitu ahal zaiola bilera batera adierazteko gertatutakoren berri izan duela eta gertatutakoak delitua dakarrela.

Ostalarien gertaera hauen inguruan formakuntza jasotzea ere garrantzitsua iruditzen zaie bildutakoek, proposamena berdintasun teknikariak jasotzen du eta negua bidean antolatzeke gelditzen dira bildutakoek.

Bilera amaitu baino lehen laburpen bezala bildutakoek jasotzen dute, familiari emango zaiola Berdintasun Teknikariaren telefonoa berarekin harremanetan jarri nahi badute, eta aukera irekiko zaiela salaketa soziala martxan jartzeko. Hala bada, eraso mahai deituko zen eta protokoloa martxan jarri.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez 20:00 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.